



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 20a

150. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketa (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena. Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztu du (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean detektatutako beharrian berrien eta balorazioaren arabera. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Europar Batasunetik kanpoko BAME-en estatusa aldatu eta ikasketa-baimenaren ordez lan- eta egonaldi-baimena eman dezan. Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agenciak bermatutako zerbitzuen kalitatea berrezar dezan. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoko obrei berehala ekin diezaien eta obra horiek egiten diren bitartean ordezko toki bat presta dezan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (14. or.).

- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio errespetatzea Legebiltzarraren gehiengoak hartutako erabakiak, eta, zehazki, EiTBrri eskatzen diona sare analogikoa digitalizatzea, euskal telebista kate autonomikoa LTD bidez foru erkidegoan har dadin. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Afrika Iparraldeko eta Ekialde Hurbileko gobernuetako aldebiko harremanen esparruan, errespetua eta giza eskubideen babes erreal eta eraginkorra koka ditzan ekimen ororen erdigunean. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa erakusten baitio Kontuen Ganberari Foru Erkidegoko organo fiskalizatzaile gisa. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, ehizazainik ez duten barrutietan orein eta orkatzetarako erabili diren prezintuei dagokienez, Marisa de Simón Caballero andreak egina (18. or.).
- Galdera, orein eta orkatzetarako prezintuak dauzkaten ehiza barrutiei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (19. or.).
- Galdera, Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka irekitako zehapen-espeditenteei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (19. or.).
- Galdera, 2014rako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuko “Laguntza espezializatua” izeneko 544. programari eta “Nafarroako Ospitalegunea” 544000. proiektuari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (20. or.).
- Galdera, ospitale-sukaldeetako zerbitzu-ematearen gaineko satisfazio-inkestei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dion hautagaia hautatzeko arauak (22. or.).
- Mahaiaren 2012ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Proiektu hori 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren lehenengo idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

«Bat. 174.2. artikulua. 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzeterako ondorioekin.

“2. Hipoteka-zordunen ohiko etxebizitzaren eskualdaketetan, finantza entitate batek eskatutako epaiketa bidezko prozedura batean egindakoak badira eta etxebizitza hori denean subjektu pasiboaren titulartasuneko etxebizitza bakarra, ondusun higiezin eskuratzen duen entitateak, zergadunaren ordezkio gisa, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa halaber aplikatuko zaio eskuratzailari, ohiko etxebizitza notario bidez estrajudizialki saltzen denean, Hipoteka Legeko 129. artikuluan aurreikusten den moduan, bai eta ordainean ematen denean aipaturiko etxebizitza, hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin iritsitako akordio baten ondorioz eta hipoteka-exekuzioaren ordezkio neurri gisa, eta, betiere, etxebizitza hori zergaduna titular deneko etxebizitza bakarra baldin bada”».

Zioak: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen foru lege proiektuaren artikulua bakarreko lehen idatz-zatiak aldatu egiten du azken horren 174.2 artikulua testua, ezartzeko ezen, kasu jakin batzuetan, etxebizitza eskualdatzen duen hipoteka-zordunak ez diola aurre egin beharko hiri-izaerako lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga-tasari. Zerga horren ondorioetarako babes-tutako hipoteka-zordunen multzoa zein den zedarrizteko, aurrerantzean ez dira kontuan hartuko familia unitatearen diru-sarrerak, eta ez da beharrezkoa izanen etxebizitza ordainean ematea. Aski izanen da hipoteka-zordun baten ohiko etxebizitzaren eskualdaketa izatea, finantza entitate batek eskatutako epaiketa bidezko prozedura batean gertaturikoa; betiere, baldin eta etxebizitza hori subjektu pasiboaren titulartasuneko etxebizitza bakarra bada, edo ohiko etxebizitzaren salmenta estrajudiziala izatea, notario bidezkoa, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitakoa.

Zuzenketak proposatzen du 174.2 artikulua hori aldatzea, eta helburu du hipoteka-zordunen babesa oraindik gehiago handitzea; izan ere, hiri-izaerako lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga-tasa ere ez dute jasan beharko, baldin eta aipaturiko etxebizitza hori ordainean ematen bada, hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin iritsitako akordioen ondorioz, eta hipoteka-exekuzioaren ordezkio neurri gisa; betiere, etxebizitza hori zergadunaren titulartasuneko bakarra izan beharko da.

Aldaketa horren arrazoia zera da, ikusi ahal izan dela gero eta ohikoagoa dela hipoteka-zordunek akordio adiskidetsuak iristea finantza-entitateekin, horrela zera posible egiteko: aipaturiko ordainean emate horrekin zorraren erabateko iraungitzea gerta dadila, efektu gaiztorik gertatu gabe; alegia, ohiko etxebizitza galtzeaz gain zorraren zati bat oraindik ere kitatu gabe gelditzea.

Orobat aintzat hartu behar da zuzenketa hau bat datorrela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari hipoteka-zordunen babesa handitze aldera aurkezturiko zuzenketekin.

174.2 artikulua aldaketak 2012ko martxoaren 11tik aurrera izanen du indarra; hain zuzen ere, orain aldarazten den aginduak indarra izan zuen egunetik aurrera, beraz.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legeak 8. artikuluan

dioenez, Iruñerriko Mankomunitatearen titulartasuneko zerbitzu hori finantzatzeko beste baliabide batzuen artean Nafarroako Gobernuaren ekarpenak eta legearen aplikazio-eremuko udalenak erabiliko dira, eta ekarpen horiek Hiriko Garraioaren Planari jarraituz finkatuko dira. Garraio Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, automatikoki beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin.

Nafarroako Gobernuak 2010eko abenduaren 13an onetsitako Hiri Garraioaren Planak 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako ekarpenak finkatu zituen. Oraingoan plan hori ez da beste batez ordeztu. Egoera ekonomiko orokorraren bilakaera eta zerbitzuaren beraren egoera ikusirik, eskualdeko hiri garraioa behar bezala finantzatu ahal izateko ez da aski goian aipatutako 8. artikuluan xedatutakoa aplikatzea, hots, plana automatikoki luzatu eta ekarpenak kontsumorako prezioen indizearen arabera igotzea; izan ere, aurreikusi gabeko defizita sortzen da eta entitate titullarrak ezin du bere baliabideekin estali.

Bidezkoa da, sortutako egoera konpontze alde-ara, foru legearen 8. artikulua testua aldatzea, kontsumorako prezioen indizearen arabera igoe-ra defizita berdintzeko nahikoa ez den kasuei erantzuteko eta, horrekin batera, 2013ko ekitaldi honetako egoera behin-behinean konponduko duen xedapen iragankor bat eransteko.

Artikulu bakarra.

Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legearen 8. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hau izanen da:

“8. artikulua. Finantziatorako ekarpenak.

1. Nafarroako Gobernuak eta foru lege honen aplikazio-eremuan sarturiko udalerriek, Hiri

Garraioaren Planari jarraituz finkatzen diren ekarpenei aurre egin ahal izateko, behar adinako zenbatekoak aurreikusten dituzten kontusailak sartuko dituzte euren aurrekontuetan.

Udalerriek baimena eman ahal izanen diote Mankomunitateari Nafarroako Gobernuari hauxe eska diezaion: foru lege honetan araututako zerbitzua finantzatu ahal izateko udalerriek Mankomunitateari eman behar dizkioten kopuruak ordain ditzan, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsaren kargura.

2. Garraio Plana ez baldin bada aldatzen edo gaurkotzen, eta kasu horretarako aurreikuspen berezirik ez baldin badu, automatikoki beste ekitaldi ekonomiko baterako luzatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizeari dagokion gehikuntzarekin. Ekarpentak zerbitzuaren kudeake-

ta estaltzeko nahikoa ez badira, defizita proporzionaliki banatuko da Nafarroako Gobernuaren eta udalerrien artean”.

Xedapen iragankorra.

Gaur egun 2011-2012 aldirako indarra duen planaren ordezkari Eskualdeko Hiri Garraioaren Plan berria onesten ez den bitartean, Nafarroako Gobernuak aurreikusitako kudeaketa-defizitaren % 80 jarriko du eta udalkek gainerako % 20a jarriko dute, eta udalen ekarpen hori 2012ko ekitaldian egin dituzten ekarpenen araberrako proportzioan banatuko da udalen artean.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztu du Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Garraiorako eskubidea, hau da kalitate eta prezio egokian hiritarren mugikortasuna bermatzea, aginte publikoen betebeharra da, eta arazo horri taxuzko irtenbidea ematen saiatu beharra dute.

Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan Foru Komunitateak erabateko eskumena du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1.f) artikulua indarrez.

Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko 8/1998 Foru Legeak konponbidea eman zien Iruñerriko metropolialdeko bidaiari-garraio erregularrak zituen disfuntzioei. Eskumen administratiboen banaketak sortzen zituen disfuntzio horiek. Izan ere, hiri garraioa, udalerrietako mugen barrukoa, udalen eskumenekoa zen –kasu honetan Iruñeko Udalak bakarrik erabiltzen zuen eskumena–, eta hiri arteko garraioa, Iruñearen eta metropolialdeko gainerako udalerrien artekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoa; banaketa hori ez zetorren bat herritarren joan-etorrien benetako eremuarekin.

Foru lege horrek integrazio administratiboaren konponbidea arautu zuen garraio agintari bakarria ezarri eremu osorako; hain zuzen ere Iruñeko Mankomunitateari esleitu zion zerbitzuaren kudeaketa. Zerbitzuaren eremuan lehendik zegoen eta beste zerbitzu publiko batzuk ematen zituen administrazio bat zen, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna zuena, eta udalek Mankomunitatean zuten partaidetzak bermatu egiten zuen haien autonomia.

Mankomunitateak Iruñerriko bidaiari-garraio erregulararen gaineko eskumen berri horiek hartu zituen 1999ko apirilaren 26an, eta eskualdeko hiri garraioko zerbitzu berria abian jarri zen 1999ko uztailaren 26an. Ordutik aurrera ez ziren bereizi hiriko zerbitzuak eta hiri artekoak.

8/1998 Foru Legeak eskualdeko garraio zerbitzua planifikatzeko tresna bat taxutu zuen eta Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana deitu zion.

Foru lege horren 5.1 artikulua arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio Iruñerriko Hiriko Garraioaren urte anitzeko Plana onestea, eta zerbitzuaren titular den entitateak, hots, Iruñerriko Mankomunitateak sustatu behar du plan hori.

Denboraren buruan egiaztatu da plana onesteko prozedura ez dela eraginkorra, eta ez da beharrezkotzat jotzen Nafarroako Gobernuaren tutoretza; entitate eskudunak berak onetsi behar luke plana, hori bai, foru legean jasotako printzipioei men eginez.

Horregatik garrantzitsua da gogora ekartzea aipatutako printzipioek diotena: zerbitzuaren kalitatea, eraginkortasuna eta eragimena etenik gabe hobetu behar dira eta administrazio guztiek lagundu behar dute kalitatea hobetzen, horretarako planeamendu-tresnak onetsiz eta garraio publikoaren abiadura komertziala hobetzeko ekintzak garatuz. Halaber, garraioaren erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifen bidez zerbitzuaren kostutik zenbat estaliko den finkatzen da, eta gainerakoa nola banatuko den ukitutako administrazioen artean, hau da, Foru Komunitateko Administrazioen eta udalen artean.

Banaketa horretan Foru Komunitateko Administrazioak parte hartzearen arrazoi nagusiak dira, batetik, ekarpena egitea bere eskumenekoa izan zen hiri arteko garraioa –Iruñearen eta inguruko udalerrien artekoa– mantentzeko, eta bestetik, toki entitateak finantzatzeko ekarpena egitea, zeina, Espainiako Konstituzioaren 142. artikulua agintzen duen bezala, Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia erkidegoek bildutako tributuen etekinak toki entitateei emanez gauzatu behar baita.

Bestalde, arautzen den garraioa hiri garraioetatik definitzen denez, Nafarroako Gobernuak zerbitzuaren eremua alda dezake foru dekretuz, zerbitzu horrek Foru Komunitatearen eskumenei eragiten diolako.

Foru lege hau eman da Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan Foru Komunitateak duen erabateko eskumenaz baliaturik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1.f) artikulua indarrez.

Artikulu bakarra. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legearen manu hauen testua honela izanen da:

Bat. 3. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Foru lege honek arautzen duen hiriko garraioaren aplikazio eremua honako udalerrri hauek osatuko dute:

- Antsoain.
- Aranguren: Mutiloako bizigunea, hain zuzen.
- Barañain.
- Beriain.
- Berriobeiti: Aitzoain, Artika, Berriobeiti eta Berriogoitiko kontzejuen lurraldea, hain zuzen.
- Berriozar.
- Burlata.
- Zizur: Zizur Txikiko Kontzejuaren lurraldea, hain zuzen.
- Eguesibar: Gorraitz eta Sarrigurengo biziguneak eta Olazko Kontzejua, hain zuzen.
- Esteribar: Ollokiko bizigunea, hain zuzen.
- Ezkabarte: Arre eta Orikaingo kontzejuak, hain zuzen.
- Galar: Cordovillako Kontzejua, hain zuzen.
- Uharte.
- Noain (Elortzibar): Noaingo bizigunea, hain zuzen.
- Orkoién.
- Iruña.
- Atarrabia.
- Zizur Nagusia”

Bi. 4. artikuluaren izenburua aldatzen da. Hemendik aurrera, “Eskumen araubidea” izanen da.

Hiru. 4. artikuluko 2. idatz-zatia.

“4.2. Iruñerriko Mankomunitateari dagokio foru lege honen xede den garraio publikoko zerbitzuaren titulartasuna eta berari esleitzen zaio zerbitzu hori kudeatu eta antolatzeko eskumena, aplikatu beharreko legediari jarraituz.

Iruñerriko hiriko garraio publikoaren zerbitzua erabiltzeko udalerriek izanzen duten integrazio epea 9 urtekoa izanen da, gutxienez”

Lau. 4. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatiak kentzen dira.

Bost. 5. artikulua kentzen da.

Sei. 6. artikulua ondoren kapitulu berri bat eransten da, II. bis kapitulu. Hona hemen:

“II. bis KAPITULUA

Zerbitzua planifikatzea eta hirigintza-planeamenduan integratzea

6. bis artikulua. Zerbitzua planifikatzea.

1. Foru lege honen xede den zerbitzua Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana izeneko tresnaren bidez planifikatu eta antolatuko da. Urte anitzeko plana izanen da eta Iruñerriko Mankomunitateak onetsiko du.

2. Iruñerriko Hiriko Garraioaren Planean foru lege honen xede den zerbitzua ematea arautuko duten ildo nagusiak zehaztuko dira, baita programazio eta plangintzako oinarriko printzipioak ere; eta, gutxienez, honako gai zehatz hauek ukituko ditu:

- a) Helburu eta irizpide orokorrak.
- b) Zerbitzuen plangintza.
- c) Inbertsioen programazioa.
- d) Plana betetzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa.
- e) Tarifen markoa.
- f) Planaren helburuak lortu ahal izateko zerbitzuaren titular den entitateari Foru Komunitateko Administrazioak eta foru lege honen aplikazio eremuko udalek zer ekarpen egin behar dioten zehaztea.

3. Garraio planak honako gidalerro hauei jarraituko die:

- a) Kalitate oneko garraio zerbitzu publikoa ematea, eraginkortasun eta eragimen egokiek.
- b) Garraio publikoaren erabilera sustatzea, hura integratuz hirigintza-planeamenduko tresnetan.

c) Zerbitzuaren abiadura komertziala hobetzea, antzeko metropolialdeetan lortu diren emaitza onenen pareko balioak lortzeraino.

d) Kostu osoen ehuneko berrogeita hamabost, gutxienez, tarifen bidez eta zerbitzuari atxikitako beste diru-sarrerara batzuen bidez estaltzea lortzea.

e) Tarifen bidez edo zerbitzuari atxikitako beste diru-sarrerara batzuen bidez estaltzen ez diren gainerako kostuen finantzaketa honela banatzea: ehuneko 65 Foru Komunitateko Administrazioaren kargura eta gainerako ehuneko 35a lege honen aplikazio eremuko udalerrien kargura.

f) Lege honen aplikazio eremuko udalerriei dagokien zatia biztanle kopuruaren arabera banatzea udalerririk horien artean. Eskaini behar den gutxieneko zerbitzuaren kostua kontuan harturik kuota finkoa edo gutxieneko zenbatekoa ezarri ahal izanen da. Bestalde, ekarpen hori modulatu ahal izanen da, udalek neurri eraginkorrak hartzen badituzte zerbitzuaren abiadura komertziala hobetzeko eta garraio publikoa hirigintza-antolamenduan egoki integratzeko.

6. ter artikulua. Hirigintza-planeamenduan integratzea.

1. Lurralde eta hiri antolamendurako tresnek Garraio Planean ezarritako helburu eta irizpide funtzionalak jasoko dituzte eta espazioan zehaztuko dituzte.

2. Garraio Planean aztertu egingen dira lurralde antolamenduko tresnek garraio publikorako ezarritako ibilbideak edo lehentasunezko trazaduren sarea, eta egokitzat jotzen diren aldaketak proposatu dira zerbitzuaren etorkizuneko plangintzari begira.

3. Hirugarren artikuluan zehaztutako eremuko udalek sustapen lana egin beharko dute beren hiri-planeamendua lagungarria izan dadin garraio publiko eraginkorra eta herritarrentzat eskuragarria lortzeko. Zerbitzua behar bezala emateko behar den leku-erreserba egingen dute. Urbanizazio proiektuen bitartez planeamendua betetzerakoan elementu eta diseinu egokiak ezarri beharko dira, garraio publikoko zerbitzua hobetuko dutenak, bereziki haren abiadura komertziala. Horretarako garraio publikoa lehenesten duten neurriak ezarriko dira, hala nola:

- a) Autobus-erreiak.
- b) Semaforoetara hurbildu ahala pasatzen uzteko sistemak.
- c) Zirkulazioko erreian bertan gelditu ahal izatea, alboratu gabe.

d) Galtzadan abiadura motelarazteko diseinu egokia duten sistemak ezartzea, garraio publikoaren ohiko abiadura murrizten ez dutenak.

4. Iruñerriko Mankomunitateak lurralde eta hiri antolamenduko tresnen eta urbanizazio proiektuen gaineko txostenak egin beharko ditu, garraio publikoan eragina duten aldetik: zerbitzua emateko egiturazko beharrak eta behar operatiboak, haren finantzaketa eta bideragarritasun ekonomikoa, sare osoan duen eragina, eta garraio zerbitzuari eragiten dion beste edozein inguruabar”

Zazpi. Lehen xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Lehena. Sistema horren bideragarritasuna eremu txikiago batean.

Lege honen aplikazio eremuko udalerriren batek Mankomunitatetik ateratzea erabakitzen badu, Iruñerriko Hiriko Garraioaren Plana aldatu beharko da, aztertzeke foru lege honetan araututako hiriko garraio publikoaren sistema gelditzen diren lurraldeetan kudeatzea bideragarria ote den.

Iruñerriko Mankomunitateak erabakiko balu sistema hori gelditzen den lurraldean ez dela bideragarria, urtebeteko epean beste kudeaketa-modu

bat sustatzeko eskatu beharko dio Nafarroako Gobernuari”

Zortzi. Bigarren eta hirugarren xedapen gehigarriak kentzen dira.

Bederatzi. Xedapen iragankorrak kentzen dira.

Azken xedapenetako lehena. Arau osagarriak.

Foru lege honetan arautzen den bidaiari-garraio erregularrari dagokionez, bertan xedatuta ez dagoen orotan Errepideko Hiri barruko Garraio Publikoa arautzen duen Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

Azken xedapenetako bigarrena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean detektatutako beharrizan berrien eta balorazioaren arabera.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean detektatutako beharrizan berrien eta balorazioaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen eledun Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Ezgaitasuna da pertsona baten beharrizanak eta pertsona horri gizarteak ematen dizkion aukerak integratzearen emaitza.

Ezgaitasunak dituzten pertsonen autonomia eta garapena sustatzera bideratutako programak, politikak eta jarduketak areagotzeak berekin eka-

rriko du ezgaitasuna gutxitzea. Helburua hori izan behar da nahitaez:

aukera-berdintasuna eraginkorra eta egiazkoa izatea. Ezgaitasunaren eguna ospatzearen kartera, Corminek zenbait proposamen egin zituen, agerian uzten zutenak Nafarroan onetsitako araudia betetzen ez dela eta/edo berandu betetzen dela, eta beste horrenbeste gertatzen dela ezgaitasunaren arloko politiketan eta jarduketetan sakondu eta horiek hobetzeari dagokionez.

Horregatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2010etik 2013ra bitarteko Planak iraun duen bitartean detektatutako beharrizan berrien eta balorazioaren arabera.

2. Aurrerabidea egin dezan Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen garapen osoan, aukera-berdintasuna ziurtatzeko.

3. Administrazio Publikoak egindako kontratazioen % 6 izan daitezela enpleguko zentro berezietan eta gizarteratze eta laneratze zentrotan egindakoak, Kontratu Publikoari buruzko Legearekin bat.

4. Aurrekontu-zuzkidurak mantentzen dituzten Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Laguntzeko Plana betetzen dela ziurtatzeko, eta urte anitzeko finantzaketa-planak taxutu dituzten, epe ertaineko eta luzeko plangintza erraztuko dutenak.

Iruñean, 2013ko abenduaren 4an

Eleduna: Roberto Jiménez Allik

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Europar Batasunetik kanpoko BAME-en estatusa aldatu eta ikasketa-baimenaren ordez lan- eta egonaldi-baimena eman dezan.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Europar Batasunetik kanpoko BAME-en estatusa aldatu eta ikasketa-baimenaren ordez lan- eta egonaldi-baimena eman dezan.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Osasuneko kontseilariari Europar Batasunetik kanpoko BAME-ei buruz galdetu genion, eta erantzun zigun une honetan atzerriko 74 sendagile ari direla zerbitzu ematen Osasunbidean, eta Nafarroako Foru Komunitateko gainontzeko langileei aplikatzen ari zaien araudi bera aplikatzen zaiela horiei.

Jakin badakigu Europar Batasunetik kanpoko BAME-ek ikasle tratamendua dutela, ezen ez langile tratamendua, eta hori dela horien eta gainerako BAME-en arteko aldea. Eta badakigu Osasun Departamentuak Europar Batasunetik kanpoko BAME-ei ez diela ikasketa-baimenaren ordez lan- eta egonaldi-baimena eman nahi. Hori dela-eta, haien egonaldia bukatutakoan ezin dute kontratazio-sistema batean parte hartu eta, okerreanean ere, langabezia kobratu.

Estatus hori prestakuntza BAME izatetik BAME langilearena izatera igarotzeko gomendioa egin du

orain dela gutxi Nafarroako Arartekoak. Halaber, Nafarroako Gobernuak inolako ika-mika juridikorik gabe egin du aldaketa hori aurreko ekitaldietan.

Aipatutako erantzun horretan, kontseilariak adierazi zigun hizpide ditugun langile horiek Gizarte Segurantzarentzat ari direla kotizatzen eta tributu arloko betebeharrak betetzen dituztela, dagokien langabezia-kuota ordainduta.

Kasu bitxiak ari dira gertatzen Espainiako zenbait autonomia erkidegotan. Langabezia dela-eta ordaindutako dirua itzultzen ari zaie langile batzuei. Bulego batzuetan langabezia-prestazioa onartzen zaie; eta beste batzuetan, ez. Lege-hutsune hori desberdintasunak eragiten ari da, eta hori ezin da onartu.

Ezin dugu ahanzi langile horiek lan oso garrantzitsua egiten ari direla Osasunbidearen barruan, nahiz eta batzuetan ez den behar bezala onartzen eta balioesten; izan ere, horien lanaldiak lan-hitzarmenetan hitzartutakoa gainditzen du, eta horrenbestez lanordu horiek aparteko lanordu gisa hartu beharko lirakeke, baina Osasuneko kontseilariak adierazi digunaren arabera, Osasunbideak ez ditu horrela ordaintzen, BAMEak izateagatik.

Azaldutako egoera hori bidegabea baldin bada, are bidegabeagoa da Nafarroako Gobernuak etorkizunean langabezia kobratzeko aukera ukatzea profesional horiei –sei urteko karrera bat gainditu dute, gehi nazio mailako BAME oposizio bat, eta gutxienez ere hiru urtez lan egin dute espezialitate bateko prestakuntzan–, nahiz eta kuota ordaindu duten 2011n, 2012an eta 2013an. Eta ezein pertsona fisikok ez juridikok ez du salatu deskontu hori legez kanpoko delat.

Edonola ere, aurretiaz kasuko tasa ordainduta prestakuntzako BAME izatetik BAME langilea izatera aldatzeak ez lioke kalterik eraginen Osasunbideari; aitzitik, osasun arloko profesional horiek aurreko urteetakoan aldean ez diskriminatzen lagunduko luke. Kontuan hartu behar da, gainera, Europar Batasunetik kanpoko BAMEak prest egoen lirakekeela tasa hori pertsonalki finantzatzeko.

Hori guztia dela-eta, gure parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio Europar Batasunetik kanpoko BAME-en estatusa alda dezan, orain duten ikaske-ta-baimenaren ordez lan- eta egonaldi-baimena emanda, horrek bermatuko bailuke langabezia-

prestazioa jasotzea Nafarroako Osasun Sistemari BAME sendagile gisa prestakuntza hartu ondoren.”

Iruñean, 2013ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak bermatutako zerbitzuen kalitatea berrezar dezan.

BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak bermatutako zerbitzuen kalitatea berrezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen lehen tituluan jasotzen da zein diren gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak eta betebeharrak Nafarroan. Seigarren artikuluan –“Gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak”– zerrendatu eta definitzen dira zerbitzu horiek erabiltzen dituzten pertsonen aukerei dagozkien atalak. Foru Administrazioak erabiltzaileei bermatu beharreko esku-

bideei dagokienez, lehendabizikoa nabarmendu behar dugu, daukan garrantziagatik:

Kalitateko zerbitzuak jaso eta horretarako ezarriak diren estandarren berri izateko eskubidea.

Ildo berean eta helburu berarekin –emandako zerbitzuen kalitatea eta pertsonen eskubide subjektiboak betetzen direla ziurtatzea–, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak ondokoa dio “Berdintasuna, exijentzia eta kontrol iraunkorrari dagokienez” kapituluan:

Plan honetan aurreikusitako neurriak eta ekintzak egitean bermatuko da araudi bera eta kalitateko estandar berak betetzea, nor ere den zerbitzua ematen duena.

Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia izeneko erakunde autonomoa irailaren 10eko 184/2007 Foru Dekretua aplikatzean sortu zen. Gizarte Politiketako Departamentuaren mendeko erakunde horrek betetzen duen eginkizuna da adinekoei, desgaitasuna duten pertsonen eta mende-kotasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako baliabideak, zerbitzuak eta prestazioak kudeatzea.

Agentziaren helburuen artean daude “baliabiderik egokienak eskaini, hurbildu eta ematea adinekoei, desgaitasuna duten pertsonen eta mende-kotasun egoeran dauden pertsonen eta haien familiei”

Aipatutako helburu horiek garatzen dira pertsonentzako eta kolektiboentzako laguntzak sustatu eta itunak eta hitzarmenak eginez zerbitzu-entitateekin, bai eta zerbitzu berekiak eskainiz ere.

Nafarroako Gobernuak daukan egituraren barruan, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren eskumenekoak dira adinekoentzako

zentroak eta desgaitasuna duten pertsonentzako zentroak, biak ala biak mendekotasuna duten edo ez duten pertsoneri zuzenduak. Esparru horretan nabarmendu behar dira, duten izaera hertsiki publikoagatik, Iruñeko “El Vergel”, Lizarrako “Santo Domingo” eta Barañaingo “San José” zahar-etxeak.

Parlamentu-taldeek, Nafarroako Gobernuaren jarduna kontrolatzeko ahalmena baliatuz, zenbait ekimen abiarazi dituzte Gizarte Politiketako Batzordean, arestian aipatutako zahar-etxe horien egoera zein den egiaztatzeko xedez. Halatan, Gizarte Politiketako Batzordeko kideek bisitak egin dituzte “El Vergel”, “Santo Domingo” eta “San José” zahar-etxeetara, eta lan bilera bat egin dute hiru zahar-etxe horietako langileen ordezkariekin eta bertan ordezkariak duten sindikatuekin.

Lan bilera horren, zahar-etxeetara egindako bisiten eta zentro publikoetako erabiltzaileek parlamentu-talde guztioi igorritako gutun baten ondorioz, mozio hau sinatzen dugun parlamentu-taldeok egiaztatu dugu murriztu egin dela zerbitzuaren kalitatea, eta horrek eragina daukala zahar-etxeen erabiltzaileengan eta langileen lan-baldintzetan. Halatan, azpimarratzekoa da plantillaren lan-baldintzak okertu izanak –okertze horretan sartzen da laneko arriskuekin lotura duen guztia– eragin argi eta garbia duela erabiltzaileek jaso beharreko zerbitzuaren kalitatean, zeinak hobeezina izan beharko bailuke.

Besteak beste, honako hauek dira Gizarte Politiketako Batzordearen lan bileran salatutako arazoak, geroago egiaztatu zirenak:

- Zerbitzu medikoa kentzea asteburuetan bi zahar-etxetan.
- “El Vergel” zahar-etxean asteburuetan pertsona bakar batek gela garbiketa –komunak barne– eta guztientzako espazioen garbiketa behar bezala egiteko ezintasun materiala.
- Administrazioaren ezintasuna behar bezala betetzeko eguneroko gorabeherak, arrazoi ezberdinengatik absentziak edo langileek eskatutako lanaldi-murrizketak direla-eta sortutako bajak.
- Laneko arriskuekin lotutako lan-baldintzak eta plantillaren parte batek pairatzen zuen oporren minutu-hainbanaketa.

Ziurtatze arren ezen betetzen direla abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen lehen titulua

–Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak Nafarroan– eta bere 6. artikulua –kalitateko zerbitzuak jaso eta horretarako ezarriak diren estandarren berri izateko eskubidea– nahiz Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, ohartzen garelako zein garrantzitsua den adinekoentzako zentroetan eta ezgaitasunak dituzten pertsonentzako zentroetan dauden pertsoneri bideratutako zerbitzuetan kalitate hobeezina mantentzea eta lotura estua dagoela zerbitzuaren kalitate horren eta plantillen lan-baldintzen artean:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak bermatutako zerbitzuen kalitatea berrezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du zentro publikoetatik kendutako asteburuetako sendagileen lanpostuak berreskura ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lanpostu bakoitzerako ezarritako plantilla-protokoloak bete ditzan eta Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren laguntza-zentro guztietako langileak ordeztu ditzan baldin eta bajaran badaude gertakizun arrunt bat, laneko gaixotasun bat edo lan-istripu bat, lanaldi murrizketak edo baimenak direla-eta.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du zerbitzu orokorretako lanpostua berrezar dezan asteburuetan “El Vergel” zahar-etxean, eta zentroak berak ezarritako plantilla-protokoloak bete ditzan.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziaren zenbait zentrotan dauden egiturazko lanpostuak finka ditzan, halako moduan non plantilla organikoaren barruan sartuko baitira.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentzia osatzen duten zentro publiko guztietan erraztu eta lagundu dezan erabiltzaileen zoko huts guztiak betetzen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Foru parlamentariak: Bikendi Barea Aiestaran, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano, Txema Mauleón Etxeberria eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoko obrei berehala ekin diezaien eta obra horiek egiten diren bitartean ordezko toki bat presta dezan.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoko obrei berehala ekin diezaien eta obra horiek egiten diren bitartean ordezko toki bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2013ko iragan apiriletik aitzina, itxita dago, matxura bat dela-eta, Iruñeko San José Zentroko igerilekua. Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa da, eta hari dagokio erabilera terapeutikorako eta jolaserako igerileku horren kudeaketa. Nafarroako ezgaituen kolektiboari laguntza ematen dieten entitateek eta kaltetutako familiek egindako eskaerak gorabehera, Foru Gobernuak oraindik ez du zehaztu noiz konponduko duen igerilekua, eta ez du hautabiderik eskaini zerbitzu hori emateko, ur-

terapiak inolaz ere ordeztu ezin dituzten eta, jakina, emaitza berbera ez duten beste terapia batzuetatik harago.

Gauzak horrela, toki entitate batzuek motu propio erabaki dute bere gain hartzea zerbitzu horren prestazioa, jakin arren ez dela beren esku-menekoa, baina era horretan Nafarroako Gobernuaren tokian jarrita, bestela terapia hori desagertuko zelakoan.

Argi dago Nafarroako Gobernuak bultzatutako murrizketa-politikak muga batzuk eduki behar dituela munta etiko eta gizatiar sakoneko auzietan; esaterako, honetan. Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeen ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala has ditzan obrak, Iruñeko San José Zentroko igerileku terapeutikoa konpontzeko eta funtzionatzen jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ordezko espazio bat presta dezan, obrak egiten diren bitartean terapia horiek egin ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentua premiatzen du finantzaketa-hitzarmenak sina ditzan toki entitateekin, baldin eta interesa agertzen badute eta igerileku publiko aire-girotua badaukate, instalazio horiek ezgaitasuna duten pertsonen erabilerarako egokitzeko, bai eta ezgaitasunaren tratamenduan espezializatutako monitoreek emandako programa terapeutikoak finantzatzeko ere.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Foru parlamentariak: Bikendi Barea Aiestaran eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio errespetatzea ditzan Legebiltzarraren gehiengoak hartutako erabakiak, eta, zehazki, EITBri eskatzen diona sare analogikoa digitalizatzea, euskal telebista kate autonomikoa LTD bidez foru erkidegoan har dadin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1- Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herri-tarren herri-subiranotasuna ordezkatzeko duen erakundea den aldetik, Nafarroako Gobernuari exijitzen dio errespetatzea ditzan Legebiltzarraren gehiengoak hartutako erabakiak, eta, zehazki, gehiengo osoz eta kontrako botorik gabe onetsitako erabakia, zeinaren bidez Parlamentuak EITBri eskatzen baitio sare analogikoa aldi baterako digitaliza dezan, euskal telebista kate autonomikoa foru erkidegoan LTD bidez hartzeko, behin betiko konponbidea ematen den arte.

2- Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Gobernuak erakutsitako jarrera guztiz arbuiatzen duela. Izan ere, Nafarroako Gobernua, gobernu zentralari igorritako komunikazio baten bidez, saiatzeko ari da EITBren emisio digitala era-

gozten, alde batera utziz foru parlamentuak berak eginiko eskaria dela.

3- Nafarroako Parlamentuak ukatzen du EITBren erabakia intromisio bat denik, zeren eta Legebiltzarrarena berarena den eskari bati erantzuten baitio.

4- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu Parlamentu honek hartutako erabakiak errespetatzea ditzaten eta Parlamentuaren gehiengoak adierazitako borondatearen aurkako inolako jarduketarik egin ez dezaten.

5- Nafarroako Parlamentuak erabaki hau ahal bezain laster igorriko die Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta EITBri”

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Afrika Iparraldeko eta Ekialde Hurbileko gobernuekiko alde biko harremanen esparruan, errespetua eta giza eskubideen babes erreal eta eraginkorra koka ditzan ekimen ororen erdigunean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Bi urte baino gehiago iragan dira Afrika Iparraldeko eta Ekialde Hurbileko herrialdeetan –Tunez, Egipto, Libia, Siria, Yemen, Saudi Arabia edo Bahreinen, besteak beste– udaberri arabiarra deituta koka hasi zenetik. Eskualdeko pertsona askok, kausa komun baten inguruan bilduta, kaleak bete zituzten aldeketa bat eskatzeko, eta giza eskubideen urraketa larriak pairatu zituzten, protestak isilarazteko eragindako errepresioa dela eta.

Kontuan hartuz Europar Batasunak eta haren estatu kideek, Espainiak barne, herrialde horietako gobernu zapaltzaileekin urteetan zehar izan dituzten harremanek ez dutela behar bezala bultzatu giza eskubideen egoera hobetzea; eskualde horretako liskarrek tokialdeketa masiboak eragin dituztela; emakumeek, oraindik ere, diskriminazioa pairatzen dutela, hala legean nola praktikan; ikusirik manifestariak, gehienetan baketsuak, zapaltzeko erabili diren armak, munizioak eta tresneria erabili direla jendeari eragotzi nahian adierazpen, biltera eta manifestazio eskubidearen erabilera zilegia.

Eta kontuan hartuz giza eskubideen testuinguru aldatzeko aukera, Nafarroako Parlamentuak ondoko adierazpen instituzionala onartzen du, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio, Afrika Iparraldeko eta Ekialde Hurbileko gobernuekin dituen alde biko harremanen esparruan, giza eskubideen errespetua eta babes erreal eta eraginkorra koka ditzan ekimen ororen erdigunean. Horretarako Espainiako Gobernuak honako neurri hauek hartu beharko lituzke:

- Giza Eskubideekiko lehentasunezko tratamendua bermatzea Espainiak eta EBk herri horiekin dituzten alde biko harremanetan.
- Eskualde horretarako arma transferentzia eta esportazio guztiak kontrolatzea, eta halaber, haiek bertan behera uztea eta ez baimentzea, armak giza eskubideak urratzeko edo urraketa horiek errazteko erabiliak izan daitezten funtsezko arriskua dagoenean.

- Herrialde horiek giza eskubideen arloko nazioarteko itunak berrets ditzaten eta Nazio Batuen giza eskubideetarako mekanismoetan sar daitezten sustatzea.

- Herrialde horietako agintariak premiatzea zigorgabetasunari amaiera eman eta ikerketa independenteak, osoak eta sakonak abiaraz ditzaten, matxinadetan eta lehenago egindako giza eskubideen urraketei buruz, erantzuleak justiziaren eskuetara eramatea eta biktimen familiek ordaintza jasotzea bermatzeko, eta amaiera eman diezaieten atxiloketa arbitrarioei eta bermerik gabeko epaiketei, eta tortura eta bestelako tratatu txarrak debeka ditzaten.

- Agintariei laguntza ematea emakumeen eskubideak sustatu eta babesteko, emakumeen parte-hartzea bermatu eta haiekiko bereizkeriari amaiera emateko, eta genero indarkeriaren eta sexu indarkeriaren aurka borrokatzeko.

- Agintariak premiatzea Egiptoko gutxiengoak, koptoak barne, modu eraginkorrean babes ditzaten, eta legezko oztopo eta trabak ken ditzaten matxinadetan kaltetu edo suntsituak izan ziren kultu eraikinak berreraikitzeke. Kristau koptoen aurkako erasoak ikertu behar dituzte, eta erantzuleak justiziaren aurrera eramane.

- Heriotza-zigorren abolizioa sustatzea, eta hori egin bitartean moratoria bat deklaratzeko; herrialde horietako agintariak premiatzea adierazpen-, manifestazio- eta bilera-eskubideak errespetu ditzaten; horretarako eskubide horiek zigortzen dituzten legeak nazioarteko lege eta arauekin bat etortzeko aldatuko dituzte, edo bestela, indargabetu.

Era beran, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Afrika Iparraldeko eta Ekialde Hurbileko gobernuekiko edukiko duen edozein harremanen erdigunean, giza eskubideen errespetua eta babes erreal eta eraginkorra koka ditzan, aurreko lerroetan aipatu diren kezkek kontuan hartuta.”

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa erakusten baitio Kontuen Ganberari Foru Erkidegoko organo fiskalizatzaile gisa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babesa erakusten dio Nafarroako Kontuen Ganberari Nafarroako Foru Erkidegoko organo fiskalizatzaile gisa, eta egun duen balioa aitortzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio CORA izeneko agirian

ken ditzan Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko aipuak eta hura ezabatzeko proposamena.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroa, eskubide historikoagatik, arlo ekonomiko eta fiskaletako eskumen osoen titularra dela eta, beraz, soilik Nafarroari dagozkiola arlo horietako kontrolak.”

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, ehizazainik ez duten barrutietan orein eta orkatzetarako erabili diren prezintuei dagokienez.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, zeina baita Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legearen aplikazioari buruzkoa, ehizazainik ez duten barrutietan orein eta orkatzetarako erabili diren prezintuei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Orain dela gutxi argitaratu da Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legea (uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea), zenbait ehizaldi eta monteria kasutan ehiza-barrutiek zaintza sistema bat eduki beharra ezartzen duena.

2013ko azaroaren 13an ehiza barruti guztiek jaso dute Ingurumen Departamentuaren informazio-zirkular bat, ehiza barrutiak zaintza sistema bat zein kasutan eduki behar duen ezartzen duena.

Ehiza zaintzarik gabe ehizatzen ari den ehiza barruti askori buruzko informazioa jaso dugu –hartara, ez dira betetzen ari ez legea, ez Ingurumen Departamentuak emandako jarraibideak–.

Jakin badakigu ehizazainik ez daukaten zenbait ehiza barrutitan oraindik ere orein eta orkatzetarako erabili diren prezintuak badaudela.

Galdera:

Orein eta orkatzetarako zenbat prezintu erabili dira gaur arte ehizazainik gabe? Zenbat jarraitu dira erabiltzen informazio-zirkularra jaso zutetik? Zehapen-neurririk hartu al da?

Departamentuak ba al du ehizatu diren prezintuen frogagirien kopiarik –oreinak eta orkatzak–? Ezagutzen al du ehizaldien liburuaren edukia?

Aparteko zer neurri hartuko dituzte agintari eskudunek ez-beteze horiek zuzentzeko? Zer zehapen-neurri ezarriko dizkiete ehizari buruzko lege bete ez duten edo betetzen ari ez diren barrutiei?

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, orein eta orkatzetarako prezintuak dauzkaten ehiza barrutiei buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, orein eta orkatzetarako prezintuak dauzkaten ehiza barrutiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Orain dela gutxi argitaratu da Nafarroako Ehi-zari eta Arrantzari buruzko Foru Legea (uztailaren 2ko 23/2013 Foru Legea), zenbait ehizaldi eta monteria kasutan ehiza-barrutiek zaintza sistema bat eduki beharra ezartzen duena.

2013ko azaroaren 13an ehiza barruti guztiek jaso dute Ingurumen Departamentuaren informazio-zirkular bat, ehiza barrutiak zaintza sistema bat zein kasutan eduki behar duen ezartzen duena.

Orein eta orkatzetarako prezintuak dituzten Nafarroako ehiza barruti guztien izena eta matrikula jakin nahi dugu, bai eta barruti horietako zenbatak duten egun ehizazaina ere.

Iruñean, 2013ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka irekitako zehapen-espedienteei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka irekitako zehapen-espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Berrikitan jakin dugu, hedabideen bidez, Landa Garapeneko Departamentuak proposatu duela Erriberako Hondakinen Mankomunitateari zehapena ezartzea, hiru isurketa ere egin izateagatik bi urtean; horietako azkena, isurketa bat detektatu ondoren, El Pulguer natur-erreserbaraino heldu zena, "kutsatze-karga handikoa". Halere, argitaratutako informazioaren arabera betiere, espedientee-tako bakar batek ere ez zuen aurrera egin, ezta

beste oker-mota batzuegatik 2009an abiarazitako laugarren batek ere, nahiz eta horietakoren batean adierazten zen entitateak ez zituela konpondu beste ikuskapen batzuetan detektatutako okerrak; esaterako, “zaborteziak iragazpenik ote zuen ebaluatzeko balantze hidroklogoa ez egitea”.

Informazio horiek iturri ofizialen datuekin erkatu ahal izateko, ondoko galderak aurkezten ditugu:

– Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentuak zenbat zehapen-espeditente abiarazi ditu

Erriberako Hondakinen Mankomunitatearen aurka?

– Zenbat espeditente itxi dira zehapen bat ezarrita? Zenbat egin dute ezarritako zehapenek?

– Zenbat espeditente errekurritu dira? Izapidetzearen zer fasetan daude errekurritutako espeditenteak?

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, 2014rako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuko “Laguntza espezializatua” izeneko 544. programari eta “Nafarroako Ospitalegunea” 544000. proiektuari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, 2014rako Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuko “Laguntza espezializatua” izeneko 544. programari eta “Nafarroako Ospitalegunea” 544000. proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

2014rako aurrekontuen proiektuan, “Laguntza espezializatua” izeneko 544. programaren barruan eta “Nafarroako Ospitalegunea” 544000. proiektuaren barruan, Nafarroako Gobernuak bi kontusail ditu elikadurarako izendatuta:

– “Elikadura”, 150.000 euroko aurrekontuarekin.

– “Kanpo elikadurako kontratuak”, 6.352.000 eurokoa.

Zenbateko horien edukia eta xehakapena eta kontusail horien aurrekontua egiteko orduan erabiliko irizpideak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, ospitale-sukaldeetako zerbitzu-ematearen gaineko satisfazio-inkestei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ospitale-sukaldeetako zerbitzu-ematearen gaineko satisfazio-inkestei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

1. Ia urtebete igarota ospitale-sukaldeak pribatizatu zirenetik, Osasun Departamentuak zerbitzu-emateari buruzko inolako satisfazio-inkestarik egin al du profesionalen edo/eta erabiltzaileen artean? Baiezkoan, zeintzuk dira ondorioak?

2. Osasun Departamentuak eskatu al dio Mediterránea de Catering enpresari, zerbitzu-emateari buruzko inolako satisfazio-inkestarik egin dezan profesionalen edo/eta erabiltzaileen artean? Edo ba al daki enpresak bere kabuz halakorik egin ote duen? Baiezkoan, zeintzuk dira ondorioak?

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dion hautagaia hautatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Senatuak Lehendakariaren idazkia, non jakinarazten baitu 2014ko urtarrilaren 14an bukatuko dela autonomia erkidegoetako legebiltzarrek duten epea hautagaitzak aurkezteko Konstituzio Auzitegiko magistratu postu huts bat betetzeko.

Kontuan hartuta Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak hautatzeko arauak, 2007ko abenduaren 10eko Mahaiaren erabakiaren bidez onetsiak eta 2007ko abenduaren 17ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak, Eledunen Batzarrekin bat, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea arestian aipatu den magistratu postu bat betetzeko hautagaia, Senatuari aurkeztu beharrekoa, aukeratuko dela 2007ko abenduaren 10eko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiaren bidez onetsitako arauetan ezarritakoari

jarraituz (40. NPAO, 2007-12-17koa), eta arau horiek egokitu behar zaizkiola aukeratu beharreko hautagaia bakarra izateari.

Egokitzapen hori dela eta, arau hauek aplikatuko dira, bereziki:

a) Parlamentu-talde bakoitzak hautagai bakarra aurkeztu ahal du.

b) Osoko Bilkurak hautagaia izendatzeko botazioan, foru parlamentarietara txartelean sartzen ahal duen Mahaiak aldarrikaturiko hautagaietako baten izena soilik.

2. Xedatzea Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko hautagaitzak aurkezteko epea irekita egon dela erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2014ko urtarrilaren 8ko bederatzia eta hogeita hamarretara bitarte.

Iruñean, 2013ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mahaiaren 2012ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Langileen Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko erabakia, non eskatzen baitu 2013ko abenduaren 23tik 30era bitarteko egunetan goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan hartuta 2013ko abenduaren 23an, 26an eta 30ean ez dagoela arratsaldeko parlamentu-jarduerarik aurreikusita, hona ERABAKIA:

1. Aldatzea Mahaiaren 2012ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia; halatan, 2013ko abenduaren 23, 26 eta 30eko lanaldia goizekoa izanen da, baina horrek ez du

ezertan eragotziko beharrezkoak diren langileak eskuragarri egotea Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo egiteko, beharrezkoa izanez gero.

2. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2012ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez onetsitakoa; halatan, 2013ko abenduaren 23, 26 eta 30ean, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

